



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Iragana

Batzuetan, gauza txikietara begira jartzen naizenean, iragana ikusten dut. Argazkiekin gertatzen zait; bizkarrezurra ubelduta eta hankak erreta dauzkan gorpu baten argazkia- rekin, adibidez. Baita izenekin ere. Enrique Rodriguez Galindorenarekin, esate baterako.

Iragana erakusten didatela iruditzen zait. Iragan sarkor bat, iragan kutsakor bat, dutxatu ondoren zabaltzen den lurrunaren gisako iragan bat. Ispiluak ixten eta arnasbide- ak lanbrotzen dituen iragan bat. Edo alderantziz. Ulertuko didazue, noski. Gela-bete iragan izen batean, argazki bate- an bildua eta kolpera lehertua eta hedatua. Eta gauza txiki batetik hitz handiak ateratzen dira bat-batean; hormak ukabilez jotzen dituzten hitzak, sudur-ahoak plastikoz es- taltzen dizkiguten hi- tzak, biriketara uraren itomenaren moduan itsasten diren hitzak. “Tortura”, adibidez. Eta dutxatik atera berritan egin ohi dugun gisan, gure biluztasuna estali eta komunetik ihesi abiatzen gara arnasaren edo arropa garbien bila. Eta handik minutu ba- tzuetara, izena edo ar- gazkia atzendu-uste zai- gunean, komunera itzuli eta hantxe jarrai- tzen du lurrunak, zoko guztiak estaliz.

Parranda gau baten osteko arroparena ger- tatzen baita batzue- tan: etxera iritsitako- an sumatu ez genituen usainak nabaritzen di- tugu biharamunean. Tabakoa, alkohola, izer- dia. Denak nahasian, bezperan baino sarko- rrago, oihal artetik ihes egin nahiko balute be- zala. Arropari begira ja- rri eta jada ez dugu

arropa soilik ikusten: gaua ikusten dugu, bezperako elka- rrizketak, musika, eromena, pozak, beldurrak. Dena oihal zati batean.

Horixe gertatu zitzaidan Galindorekin ere. Izen batek praktika bat ordezkatzeko. Badira izen horren atzean ezkutatzen diren izen gehiago ere. Ekuazioko X-ak eta Y- ak. Eta urteak pasa diren honetan, gure begiek ez dute izen bat soilik ikusten; gela oso bat ikusten dute, lurruna dariola. Ur zikinez betetako bainera bat eta arnasak zula- tu ez duen poltsa. Elektrodoak eta zigarrokinak. Bi gorpu karez estaliak. Hori dena da tortura, baina ez hori baka- rrik. Norbaitek emandako aginduak ere badira, baina ez hori bakarrik. Egin ez diren gauza asko ere tortura dira:

soto beltz batean jarri ez den kamera edo epaileak entzun ez duen testigantza. Auzi- medikuak bete ez duen txostena eta politikari batek erantzun gabe utzitako galdera. Eta polizia kolpeka Honda- rribiko aireportuan. Oihuak eta jipoiak To- losako hilerrian. Ia bi hamarkadako isilta- suna. Astindu gabeko Intxaurrendak. Hori ere bada tortura.

Ihes egin nahi diogun arren, iraganak hortxe jarraitzen du. Merkata- ritza zentro batera bide- an eskuinaldera uzten dugun bidezidorraren gainean dagoen hesiak ezkutatzen duen leku horretan. Orain beste batzuk omen dira beza- tu beharrekoak; beste hizkuntza batzuk, beste gorputz batzuk. Baina jakin nahiko nuke zer gertatzen den ezer gerta- tzen ez den lekuetan. •



Astindu gabeko Intxaurrendak ere badira tortura. Jon URBE | FOKU